

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko urtarrilaren 5a. VIII. urtea. 2.152. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Urrea, intsentsua eta mirra baino gehiago ekarriko dute Errege Magoek

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri guztietara iritsiko dira gaur gauean Meltxor, Gaspar eta Baltasar magoak; herri gehienetan iluntzean izango dira kabalgatak

Tolosan erraldoien, Musika Bandaren, txistularien, soinu-joleen eta dultzaineroen laguntza izango dute; Jaiotzen Lehiaketa ere izango da **6-7**



Adunan Xurdirin ipotxaren bisita izan zuten atzokoan. E.MAIZ

Lobo Electrico, Margot, Blaka eta 3gabe2-ren musika gaur

Lehenengoek Anoetako Cheyennen joko dute eta beste hiruak Villbonako Kantinan **5**



Lobo Electrico 23:30etik aurrera ariko da. HITZA

Erakusketa ugarirekin iritsi da Tolosako urtarrileko kultur egitaraua

Napoleon, Sahara, 'reborn' panpinak, Inauteriak eta Indonesiako txotxongiloak dira nagusi erakusketetan; kontzertuak, antzezlanak, Ero-Etxe elkartearen krosa eta bertsoak ere izango dira **2**

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Ibarran

Eneko Aritzaren Lagunek eta Bartolak antolatuta dute **4**

Iritzia: Patziku Perurenaren 'Orantza aroko txermoniak' artikulua **3**



TXOKO hitza

HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** du

LAGUN ARO GBC
Caja Laboral Baskonia
saskibalo partida

Urtarrilak 9 • Igandea
12:30ean
Donostiako Illunben

sarrerak eskuratzeko deitu goizez 943-65 56 95 telefono zenbakira



sarrerak



Urtarrilarekin batera barealdia iritsi da

Erakusketa ugari ikusteko aukera dago; kontzertuak, antzerkia, bertsoak eta herri krosa ere izango dira

Erredakzioa Tolosa

Ekitaldi ugari hartu dituen hila-betea izan da abendua. Tartean, Eguberrietako opor egunak ere bai, eta horien ostean, ohi baino bareago dator kigu urtarrila.

Batetik erakusketak nabarmendu daitezke, bost behintzat badaudelako ikusgai egunotan. Bisitatzeko azken egunetan sartu denetako bat Napoleon Bonaparteri buruzkoa da. Pertsonaia honi buruz idatzi, marraztu edota egin dena ikusi ahal da Aranburu jauregian. Proposamen berezia da, baita ere, Puri Etxaburua tolosarrarena. *Reborn* izena hartzen duten haur jaioberriak irudikatzen dituzten panpinak egiten



24. Ero-Etxe elkartearen krosa izango da hilaren 23an. IDOIA LAHIDALGA

ditu, eta bere bilduma jarri du ikusgai Aranburun.

Bukatzeaz dagoen bestea Angel Cuerdorena da. Bere bidaietako argazkiekin osatu du. Hastear dauden artean, berriz, Tlsbat saila Nestor Ardanaz argazkilariarekin batera burutzen ari den Inauteriei buruzko erakusketa azpimarra daiteke.

Antzerkia eta kontzertuak

Bestalde, antzerkiari dagokionean, Txalo konpainiaren *Bajinaren bakarrizketak* izango da Leidor aretoan ikusgai. Txolarrek antolaturiko bertso jaialdiaz edota Dantzaz konpainiaren *Mintzo* emanaldiaz ere gozatu ahal da urtarrilean. Halaber, Ero-Etxe elkartearen krosa ere izango da.

Ohi bezala, kontzertu zerrenda oparoa dugu hilabete honetan ere. Atila y los Unos taldeak Fronton kafetegian joko du. Bonbernean izango diren zuzenekoetan, berriz, Berri Txarrak taldearena nabarmendu daiteke.

↓ Egitaraua

ARANBURU JAUREGIA

- **'Napoleon, basatiaren beste aurpegia'**. Eusko Ikaskuntzaren bidez antolaturiko erakusketa, ikusgai, hilaren 8ra arte. Napoleonen alderdi desberdinak erakusten dituzten elementuekin osatua. Azken egunean, hau da, hilaren 8an, bisita antzeztua egingo dute, 17:30ean. Aranburu jauregian bertan hasi, herritik ibilbidea egin, eta Aranburu jauregian amaituko da. Doan izango da.
- **'Bizia'**. Puri Etxaburua tolosarraren erakusketa, berak eginiko *reborn* panpinekin (haurtxoak irudikatzen dituztenak) osatua. Ikusgai dago hilaren 8ra arte.
- **'Mundu bete kolore'**. Angel Cuerdoren erakusketa dago ikusgai, hilaren 8ra arte. Cuerdok azken 10 urteetako bidaietan jasotako argazkien bilduma da. Argazkiak salgai daude, 50

euroan, eta jasotako dirua Sahararen aldeko proiektuetara bideratuko da, Merkatu Txikiaren bidez.

■ **'Jeiki Jeiki'**. Tolosako Inauterien inguruko erakusketa izango da ikusgai urtarrilaren 14tik martxoaren 12ra. Udaleko Tlsbat sailak antolatu du, eta herri-tarren irudiekin eta iritzi eta bizipenekin osatu du.

TOPIC

- **'Wayang Golek'**. Indonesiako txotxongiloen erakusketa dago ikusgai Txotxongiloen Nazioarteko zentroan, urtarrilaren 10a bitarte.
- **'Imajinarioz haratago'**. Jon Magic mago irurarrak emanaldia eskainiko du, hilaren 7an, 20:00etan.
- **'Txirulari majikoa'**. Teatro paraiso taldearen emanaldia izango da ikusgai, hilaren 8an, 18:00etan.

KULTURETXEA

- **'Merkatu Txikia'**. Laskorain ikastolak antolatuta, Ekuador eta Sahararen aldeko Merkatu Txikia, urtarrilaren 9ra arte egongo da zabalik.
- **'Odol ematea'**. Hileroako odol ateratzea hilaren 17an izango da, 18:30etik aurrera.

GKO GALERIA

- **'Artearen merkatua'**. Urtarrilaren 22ra arte.
- **'Mixmedia'**. Urtarrilaren 29tik aurrera izango da ikusgai bar-tzelonaren erakusketa.

LEIDOR ARETOA

- **'Bajinaren bakarrizketak'**. Txalo konpainiaren emanaldia, hilaren 14an, 20:30ean.
- **'Polleke'**. Zinea ikastetxeentzat, urtarrilaren 19an, goizean.
- **Bertso jaialdia**. Txolarre irra-

tiak antolatuta, hilaren 22an, 18:00etan.

- **'Mintzo'**. Dantzaz konpainiaren emanaldia, hilaren 28an, 20:30ean.

FRONTON KAFETEGIA

- **'Zuretzat gurekin... Javi'**. Atila y los Unos taldearen kontzertua, Fronton kafetegian, hilaren 14an, 23:00etan.

MUSIKA ESKOLA

- **'Musika Banda'**. Errege eguneko Tolosako Musika Bandaren kontzertua, bihar, Musika Eskolako areto nagusia, 18:00etan.

HAUR LIBURUTEGIA

- **Ipuin kontaketa**. Miriam Mendozaga egongo da ipuinak kontatzen, hilaren 20an, 18:00etatik aurrera.

BONBERENEA

- **Berri Txarrak**. Hilaren 14an, 22:30ean.
- **Split 77**. Hilaren 15ean, 22:30ean.
- **Bad Sound System, EKD (Japonia) eta Dandy Dj Set (Japonia)**. Hilaren 16an, 20:00etan.
- **Vornito eta UK Bill**. Hilaren 21ean, 22:30ean.
- **Afro brasildar festa**. Hilaren 22an, 22:30ean.
- **Hesian**. Hilaren 28an, 22:30ean.

BESTEAK

- **Errege kabalgata**. Gaur, 18:30etik aurrera.
- **Ero-Etxe elkartearen krosa**. Hilaren 23an izango da.
- **Tolosa Kantari**. Hilaren 29an, ohi bezala Tontokaletik abiatuko dira 12:00etan, Alde Zaharretan zehar kantu jira egiteko.

EZAGUTU
WEBGUNE BERRIAK

www.TOLOSALDEA.hitza.info

www.IBARRALDEA.hitza.info

www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info

www.ALEGIALDEA.hitza.info

www.LEITZALDEA.hitza.info

www.ANOETALDEA.hitza.info

www.TOLOSA.hitza.info

Orantza aroko txermoniak

Iritzia

Patziku Perurena
Idazlea

Orantzarro arratsean poza eta pena sentitu nuen Leitzan. Poza, behiala Urtsula Azpirotz Dambo-lihenak emandako arrastoari esker, Orantzaroren kanta zaharra jaso eta kantatu zuelako Jeiki koruak. Pena, koreografia apainegiak, Orantzaroren mezu hain ximplea ikusten ere kasik utzi ez zidalakotz. Badakit merkatu honek bere bostean segi beharra daukala. Naziogintza guziak izan baitira selebre. Eta gure ezindua hau, nola ez?... Baina kontrapuntuak azaldu zaizkio Leitzan bertan. Nik horren maite ditudan kontrapuntu ernagarriak.

Carnicerías Viejas kaleko arraiak

Ikasi nuen behin, Iruñeko Carnicerías Viejas kaleari *Arraias Orantza* deitzen omen ziotela. Eta nire burutazioak egin ere bai, testubarren horretan *Arraias* horrek, inondik ere, gure gaurko *erraiak* esan nahiko zuela azalduz. (Ikus *Harrizko Pareta Erdurratuak* liburuan 161-167 orriak, beren akats eta guzi). Beti bezalatsu, barre egin zidaten Unibertsitate eta Euskaltzaindia arteko zubian gizendutako filologo ofizialek.

'Espetar que llaman Herraya' (1548)

Paulo Iztuetak, Erdi Aroko jauntxoaren Berastegiz ari dela, honela dio hiru liburukietatik bigarrenean: «elizan eskaintzen ziren opariak, hauek izaten ziren: ogitxoak, argizaria eta haragi puska, 'arraia' deitzen zitzaiona» (54 or.). Baina, aldeaz aurretik egindako aipamen berbera, testuala dizu: «*hobladas, cera y espetar que llaman herraya*» (49 or.). Hor dabil-tza beraz, Erdi Aro ilunean, nik Iruñeko *Arraias Orantza* hartan sumatzen nituenak: haragi puska edo *erraiak* alegia. Eta begira gaztelaz ere, espetar horren esanahirik zaharrenei interneten. Eta oroitu gure puskabilteze usario luzekoaz, burrunzia lagun. Edo R. M. Azkuek jasotako honetaz: «Urte barri-barri, txarri belarri, daukonak eztaukonari, imilaun bat gari». Horra *Orantza*

Aro errukitsu baten aztarnak nahi. Eta ez atzendu behiala Pello Esnali bidali nizkion txermoniok ere:

Txermoni eta beste '-moni' batzuk

«Oraintxe duk garaia. Zenbat aldiz ibiliak ote gaude txermoni partitzen!... Zerria hil aldirio. Sosik haundienak ematen zituzten etxera joan nahi senide guziak eta, elkarren espan hantxe... Gero *armoniak, gelimoniak, oilomoniak*... Azkueren hiztegian ikusi nituenean harriturik gelditu ninduan. Usario hori ongi aztertzeak ere mereziko likek: *argeli-oilo- + -moni*... delakoa, alegia.

Baita *-moni* horren hedadura

eta apustu eginen nikek *moni* horren sorburua ijito hizkera sorgeinokoa dela. Ikus Orotariko Euskal Hiztegian «1 *moni*» edo «*monitu*» aditza. Eta erne, testubarren honetan maiz ageri den *Ani* sorgin eta bere kutsukoekin ere: *Anikote*, ondoko *Anikoko*...

Gaur arrantzale; ikazkin atzo; bihar auskalo

Inori barre egiteko presa haundia izaten duten jakintsu horiek alde batera utzita, hona berriz ere urrezko giltza, zahar ezjakin horien hitza:

Orantzarro begigorri, non harrapatu duk arrai hori? *Anikoko* barriketan, bart gabeko hamaiketan,



semantikoa ongi aztertzeak ere mereziko likek. Ikus Leitzako *Errege Erreginak* liburuan (484 or.): «—Nik esan dit *Ani*. —Hik esan tzak *Muni*»... Alde bate-tik hire *querimonia* zentzu hori, burrukarako demandarena alegia, baina, bestetik: gauzak puskatzekoa, txikitzekoa. Esan nahi baita: *muni(tu) = puska(tu)*. Horretatik gero *txermoniak = txerripuskak* sinonimia garbia. Gehiago esanen diat oraindik: kontuotan, ijito kastako euskaldunak hituan eta dituk oraindik nagusi,

Zer hebillen garai hartan? Zeruko izarran kontaktetan Lurreko belarran zamaketan

Leitzako maisu-maistra zaharrei Joamari Barriolak eta Fernando Oiaztunek jaso dizkien lau kantetan ageri da «*arraia*» hori? Bila interneten ALKE hitza sakatu. Goseak eragindako gau-

lapurreta da hor kantagai. Baina zer klastetako ote da zorioneko «*arraia*» hori? Bixigua edo legatza? Txitarroa edo berdela? Oilarra edo zapoa?... «*Hi bai zapoa! Hori duk gibel-arraiak esaten dena, edo buru-arraiak, edo... arrai klase hori biñipiñ*». Horrat! Batere eskolarik gabeko zaharrok berriz ere jakintsu. Banengoen ba ni, nola arraio izan zitekeen gaur arrantzale bart arratsean bertan ikazkin uniformetu digutena. Hala ere, ikusiak ditut «*arraia*» arrotz baten seilua dakarten Olenztzeroren irudi franko. Lehengoan alabak eskolatik ekarri zidana eta orri honetan jasoa du-zuena lekuko.

Goseak mila begigorri, Petiri:

Eta berritot diot, alfer alferrik. Bai, «*arraia*» arraio horiek, garai honetako haragi puska hagitz jakinak direla, zerria hil ondoan, leihoz kanpotik bizpahiru gau egiten dituzten birika-gibel-arrai horietzek. Eta gauz leihoa (balakoa, atalgaina), neguko hozkailu denez, hantxe dizu begia gorri-gorri goseak (eskazaleak, erromesak, pelegirinoak, ijitoak...); eta deskuidatu ezker hatzaparara ere bai agudo. Gosearen pertsonifikazioak, Petirigorrik, *Orantza Aroan*, mila begigorri erne izaten baititu, Orixez ederki euskaratu bezala:

urteak egun ainbat begi eta bat
[geigo;
gurdia añeko sabel, aurpegi
[dana ago...

Eta zer ote ziren Orantza Aroan leiho-ate-balkoietan ipintzen ziren orotariko pantomima haiek, orotariko lapur arriskutik «*arraia*» arraio haiek eta gainerako zitzi puska guziak zaintzeko *txorimaloak* izan ezean?...

Orantza Aroko pantomima polimorfoak

Beyondiela kastako amon zahar sorginduhoriei: Azpirotz, Sagastibelta, Lasarte, Gogortza, Zabaleta... Jakintsu berrion espantuak eraustuz, xuhur bezain xalo erakutsi baitigute Orantzarro bezpera gauz, nola atso hala agure, (hor-

tik gero *atxaretu-<atsoaguretu* aditzera xuhurra ere; ikus *Trapan pupua*, 173-74. or.), orotariko pantomimak paratzen ziren Leitzan leihoetan, balkoietan, ataurretan... Atzo goizera arte ugaria bezain pilomorfoa izan dela, alegia, Orantza Aroko pantomimen usarioa, eta ez inondik ere atzenaldiko *nortu* eta *uniformetua*.

Baina noiz, nola eta noren eraginez hasi zen behialako ugaritasun hura uniformatze eta nazionaltze kontua? Hori da ikerleak egin behar duen galdera xuhur bakarra: noiz, nola, noren eraginez *uniformetu* eta *nortu* da Orantza Aro zelako ugaritasun polimorfo hura? Eta noiz sortuak dira *Orantzaroren irudi uniformetu* horren kutsuko kantak. Zer diote letra horiek. Horren zahar-rrak ote dira?...

Munduan ez da folklorea baino gauza mestizoagorik eta bilauagorik, baina guk, ez dakit zergatik, baskoino noblezara jaso arteko onik ez dugu izaten. Hasieran «*entendimantu gabia*» zen buruhandi hura ere «*entendimantuz jantzi*» baiguenen segituan, naturaren lezio noble sekulakoa omen zekarrelakoa, eta abar eta adar... Bai, *txorimaloak txorion* bihurtzeko gure grina, hagitz humanoa da, eta endemas garai honetan.



2011 agenda

Dagoeneko salgai!



12€

- Liburu dendetan
- www.euskalherrikoplaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450a salgai. 2006. urtekoa eta egoera oso onean. Interesatuek deitu 635 75 9 15 telefono zenbakira.

■ **Eskopeta.** Bereta markako eskopeta railatua salgai. Oilagorretarako aproposa. Bi kanoi jokurekin. 2007koa da eta oso gutxi erabili dago. Deitu 635 75 9 15era.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Mugikortasun jasangarriaren aurkako igoera

Eguzki elkarte ekologistak Renfeko aldiriko trenen txartelen salneurria igo egin dela salatu du

Erredakzioa Tolosaldea

Eguzki elkarte ekologistak Espainiako Gobernuak Renfeko aldiriko trenen txartelen salneurria %3,1 igo duela salatu du.

«Igoera berri hau hiru arrazoiengatik da onartezina: 2010ean ere %6ko izugarriko igoera izan genuelako, zainari BEZaren %2ko igoera gehitu behar izan genion, guztira 3 urtetan al-

diriko trenen %17,6 igo delarik; Renfeko Gipuzkoan eskaintzen duen zerbitzua zaharkitua gelditu delako; eta motorizatu gabeko garraioaren garapena eta sustapenaren kontra doalako», argitu du Eguzkik.

Horiek horrela, neurria «gipuzkoarrak bi aldiz» zigortzen dituela dio talde ekologistak. Izan ere, arestian esan bezala, Gipuzkoako aldiriko trenen zerbitzua gainbeheran dagoela dio. «Ja abandonatuta dauden geltokiak, trenera jo ahal izateko arriskuekin, gero askotan zeharkaezinak diren oztopo arkitektonikoak daude eta zerbitzurik ere ez dago (komunak esaterako), azken 22 urtetan hobetu ez den maiztasuna dute tre-

nek... Renfeko ez du ezer egiten egunero tren erabiltzen dutenei zerbitzua hobetzeko eta gainera luxuzko prezioa ordaintzera behartzen gaituzte», esan du.

Eguzkiren ustez mugikortasun jasangarria indartu eta babesteko garaia da eta Renfeko bezeroei zerbitzu hau erabiltzea erraztu ordez, «zigortu egiten ditugu gehiegizkoa eta desorekatua den igoera honekin».

«Igoera gainera, diskriminatzailerik da erabiltzaile 'aberatsak', hau da, abiadura handiko trenen erabiltzaileek, %2,3ko igoera izango baitute, aldiriko trenen igoera baino baxuagoa dena, 2009an eta 2010ean gertatu zena», gaineratu dute.



Eguzkik aldiriko trenen salneurria igo dela salatu du. HITZA


Pirritx, Porrotx eta Marimotots Ibarra etorriko dira otsailaren 4an

Bertso jaialdi «arrakastatsuen» ondoren, pailazorik ospetsuenak ekarriko dituzte

Erredakzioa Kultura

Ibarrako lau eragilek auzolanean bertso jaialdia antolatu zuten abenduaren 26an. Ia 500 lagun elkartu ziren kiroldegian eta hauei eskerrak eman nahi izan dizkie antolatzaileek: «Hotz handia egin arren, jendeak erantzun bikaina eman zuen eta benetan eskertezkoa da hori. Bertsolariak ere zoriondu nahi ditugu, benetan saio borobila eskaini baitzuten».

Kultur ekitaldiek eta elkarlanak ez du etenik izango, oraingoa Pirritx, Porrotx eta Marimo-



Pirritx, Porrotx eta Marimotots Ibarra itzuliko dira. BARTOLAREN JAI BATZORDEA

tots pailazoen emanaldia antolatu baitute Eneko Arizaren Lagunak kultur elkarteak eta Bartola jai alternatiboaren batzordeak.

Sarrerak laster salgai

Euskal Herriko pailazorik arrakastatsuenak otsailaren 4an, ostiralean, etorriko dira Ibarra.

Emanaldia 18:00etan eskainiko dute eta oraindik sarrerak salgai aurkitzen ez baldin badira ere, txartelak «laster» erosi ahalko dira.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots euren azken lana eskainiko die Ibarra eta eskualdeko haur guztiei.

Gutuna

Eresargitik eskerrikasko

Eresargi abesbatzak eskertu nahi du Gabon bezpera Amasan eta Villabonan jasotako dirua. Diru hori, urtero bezala, Maeliko (Afrika) proiektu baterako izango da.

Bestalde, eskertu nahi dugu

aurtengo kontzertuak prestatzen eta aurrera ateratzen lagundu diguten lagun (entzule eta entitate guztiei (Villabonako Udala, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa, Behar Zana, Kutxa...)).

Urte Berri On denoi!

■ **Eresargi abesbatza.** Villabona.



Abesbatzak azken festetan eskaintako emanaldia. E.MAIZ

BERRIA taldeak zure laguntza behar du

HITZAK inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperean, gure komunikazio proiektuak berritu eta indartu ditugu udazkenean. Apustu hau aurrera ateratzea da, zuekin batera, gure erronka.

Ekarpena egiteko bideak
50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin

Lagundu gaitzazu ekonomikoki

- **Transferentzia Euskadiko Kutxan: 3035 0060 48 0600113162 (izen-abizenak zehaztu)**
- **Kreditu txartelaren bidez: zuzaraberria.info webgunean**

Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!

berriketan.info



www.berria.info

www.euskalherriko plaza.com

iragarkilaburrak.com

IRAGARKI LABURRAK

berria taldea

Lobo Electricoren zuzeneko kontzertua gaur Cheyenne's Radikal Saloonen

Sarrera doan da eta 23:30ean hasiko da kontzertua. Musika zuzenean entzuteko aukera ezin paregabea

Enertiz Maiz Anoeta

Gaur 23:30ean, Cheyenne's Radikal Saloonen musika zuzenean entzuteko aukera izango da. Anoeta eta Tolosa artean kokatzen den tabernan Lobo Electrico taldea izango da. *Artefactos mágicos* disko aurkezpen bira egiten ari dira eta gaur Anoetan izango dira. Sarrera, doan izango da.

Talde tolosarrak kaleratu duen bigarren diskoa du. *Sirius Magma*, *Perrolobo*, *Iki Peligro* eta *Guanche* ezizenez ezagutzen diren taldekideak. Kontzertu dibertigarriak egiten saiatzen dira eta zuzenean entzutea bezalakorik ez dago.



Lobo Electrico taldea osatzen duten lau kideak. HITZA

Margot, Blaka eta 3gabe2 taldeen kontzertuak

23:00etan hasiko dira Kantinan eta sarrera doan izango da. Larunbatean, afaria eta dantzaldia izango dira

Erredakzioa Villabona

Oinkari dantza taldeak aurrera jarraitzen du Gabon hauetarako Kantinan antolatu dituen ekitaldiekin. Gaur gauean kontzertuak izango dituzte. 23:00etan emango zaio hasiera eta guztira hiru talde izango dira eszenatokian. Kontzertuetarako sarrera doan izango da.

Kontzertuari hasiera ematen Margot taldekoak izango dira. Lizartza, Anoeta, Alkiza eta Donostiako lagunek osatutako taldea da eta beraien azken lana aurkeztuko dute Villabonan. Bigarren taldea Blaka izango da. Talde oso gaztea da eta guztiak donostiarrak dira. Barricada taldearen tononero lanak egitetik datoz Kantinara.

Bigarren urtez jarraian, gauari amaiera emateko 3gabe2 talde donostiarrak izango da. Erritmo biziz eta alaiez beteko dute Kantina. Eta iazko emanaldia ikusirik, an-

tolatzaileak ziur daude «giro bikaina» jarriko dutela.

'Gure Txokoa Oroituz'

Hilaren 8an larunbatean, *Gure Txokoa Oroituz* jaia izango dute. Afaria eta dantzaldia izango dira da Gabon egun hauetako azken jaia izango da.

21:00etan afari herrikoia ospatuko dute. Menu ederra prestatu dute: pintxo eder bat, arrain zopa, azpizuna pikillo piperrak eta pure patatarekin, postrea, kafea eta kopa izango dira. Afariaren kostua 25 eurokoa izango da.

Izena emateko 660 139 380 telefonora deitu behar da. Afarira joan ahal izateko izena emateko azken eguna ostirala izango da. Kasu honetan, antolatzaileek afariaren prestakuntza Irrintzi elkartearen esku joango dela azpimarratu nahi izan dute.

Afaldu ondoren, 23:00etan dantzaldiari emango diote hasiera. Bertaratsen direnek garai bateko musikaz gozatzeko aukera izango da. Oinkari dantza taldeko antolatzaileek «musika zaharra giro ederrarekin uztartu» eta Kantina «garai bateko Gure Txokoa dantzaleku bihurtu» nahi dutela diote. «Gonbidatuak zaudete guztiak», gaineratu dute.

Haurreskolan izena emateko epea irekiko dute hilaren 17an

Informazioa jaso eta matrikula orriak eskuratzeko haurreskolara gerturatu beharko da

E. Maiz Larraul

Larraulgo Udalak, herritarrei jakinarazi nahi die haurreskolan izena emateko epea irekiko dela urtarrilaren 17tik 28ra (biak barne).

Matrikula orriak eskuratzeko haurreskolara bertara joan be-

harko da asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 15:00ak bitarte.

Udalak, matrikula orriak betetzeko orduan eskabidean eskatzen diren datu guztiak betetzea beharrezkoa dela nabarmendu du. Era berean, eskabidearekin batera aurkezten den dokumentazioa bakarrik kontutan hartuko dela eta eskabideak aurkezteko epetik kanpo dokumentazio gehiago ez dela onartuko argitu du.

Edozein zalantza argitzeko edota informazio gehiago eskuratzeko ondorengo telefonora deitu daiteke: 943 69 37 94.

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa igandean

E. Maiz Anoeta

Igandean Euskal Herriko Mus Txapelketaren barneko kanporaketa burutuko da Anoetan. Kuku Elkartean izango da eta 17:00etan hasiko da. Izena 16:00etatik aurrera elkartean emango da. Bikote bakoitzak 20 euroko izen-ematea ordaindu beharko du. Eskualde mailako txapelketara pasako dira lehen postuetan gelditzen direnak. Lehengo bikoteari txuleta pareta eta bigarren bikoteari untxi pareta oparituko zaizkio.



Gure Txokoa Oroituz izan zuten afariko argazkia. HITZA



Egin zure erosketak Mugarren

MUGAR
MODA INTIMA

Nafarroa etorb. 16 • Tel.: 943 65 56 85
Pablo Gorosabel, 28 • Tel.: 943 65 40 37
TOLOSA



Opari praktikoak Mugarren

Badatoz, badatoz, opariekin

Gaur eskualdeko hainbat herritara iritsiko dira Errege Magoak, kabalgatak eta jaiotza biziak ikusi ahal izango dira iluntzean

Tolosan jaiotza lehiaketa izango da; Leitzan elkarretaratzea eta elkartasun afaria

Erredakzioa Kultura

Bibliak dioenaren arabera, Izarrak gidatuta, gamelu gainean joan ziren hiru erregeak Jesus haurtxoarengana. Urrea, intsentua eta mirra eraman zioten. Tolosaldeko eta Leitzaldeko etxeetara berriz gaur gauerdian etorriko dira opariak ekartzera. Baina honen aurretik, iluntze aldera herri

askotan bisita azkar bat egingo dute, haurrei gozokiak emateko eta bide batez, gutunak jasotzeko. Gameluetan ez eta zaldi gainean edo oinez egingo dute bidaia.

Jada ezagunak dira Errege Magoentzat Alegia, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Irura, Larrraul, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa eta Villabonako haurrak. Ur-



Tolosan laguntzaile ugari izango dituzte Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek. NOELIA LATABURU

↓ Errege Magoen kabalgatak (urtarrilak 5, gaur)

ALEGIA

■ **11:00etan.** Txokolatada egingo dute plazan.

■ **12:00etan.** Ume jolasak egingo dituzte plazan.

■ **19:00etan.** Hiru Errege Magoak Orendaingo bidetik jaitziko dira. Larraitz auzoa zeharkatu ondoren, San Joan kalea hartu eta herrigunea zeharkatuko dute. Ibilbidea plazan bukatuko dute eta gero udaletxeko balikoitik hitz egingo dute Erregeek.

AMEZKETA

■ **18:00etan.** San Martin auzotik jaisten dira Errege Magoak eta herria zeharkatu ondoren 18:45ak aldera frontoira iritsiko dira. Bertan gozokiak banatuko dizkiete haurrei eta ondoren txokolatea eskainiko zaie.

ANOETA

■ **19:00.** Basagain menditik irtingo dira garai horretan. Erregeak traktorean iritsiko dira plazara, Anoetako txistulariek alaiturik. Ondoren, bertan,

gozokiak banatuko dituzte.

■ **Urtarrilak 6, osteguna.**

12:00etatik aurrera, Txistulari taldearen kalejira izango da.

ARESO

■ **17:30ean.** Errege Magoak etxetz etxe ibiliko dira eta haurrei opariak banatuko dizkiete.

ASTEASU-LARRAUL

■ **20:00etan.** Elizmenditik Erregeak herrira jaisten hasiko dira Olentzerorekin batera. Udaltxeko arkupeetara 20:30ak aldera iritsiko dira. Bertan jaiotza biziak izango da eta eskaintza egingo dute. Bertsolarien, Asteasuko Abesbatzaren eta herriko dantzari txikien saioak izango dira. Ondoren, aurrez gutuna bidalitako haurrei opariak banatuko dizkiete Erregeei.

BERASTEGI

■ **18:30ean.** Errege Magoak herriko plazara iritsiko dira Urdanarain auzoko Etxoin-Berri baserritik, Pajeek bidea erakusten

diela. Bertan jaiotza biziak izango da eta hiru erregeek eskaintza egingo dute bertan. Berastegiko haurrek ere berdin egingo dute, talo, gaztaina, barzak eta abarrekin. Ondoren, Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek opariak emango dizkiete umei eta helduek sorpresa izango dute.

BERROBI

■ **20:00etan.** Larte eta Seskea baserritik jaitziko dira hiru Errege Magoak eta herrian zehar ibilbidea eginez plazara 20:45ak aldera iritsiko dira. Bertan jaiotza biziak izango da eta hori gurtu ondoren, erregeek haurrei opariak banatuko dizkiete.

BIDEGOIAN

■ **19:00etan.** Errege Magoak Goiatz aldetik Bidaniako pilotalekura iritsiko dira. Bertan jaiotza girotua egingo da, hainbat animaliarekin. Jarraian gaztainak eta taloak dastatzeko aukera izango da.

IRURA

■ **16:00.** Gazteen arteko frontenis txapelketa mistoaren finala frontoian.

■ **18:00.** Txokolatada.

■ **19:00.** Errege magoen etorrera eta opari banaketa.

LEITZA

■ **18:00.** Hiru Erregeak urtero bezala abiatuko dira, herriko umei bisita egiteko. Hauiek, herriko belenera joango dira. Han Jaiki abesbatzak saioa egingo du. Zaldietara igo ondoren, Erregeak herriko plazara joango dira eta bertan haurrei gozokiak banatuko dizkie.

LIZARTZA

■ **19:30ean.** Zelain aldetik Hiru Erregeak eta Olentzero herrira jaisten hasiko dira, bertako haurren laguntzarekin. Abereen gainean jarririk, herria zeharkatu eta frontoira helduko dira. Bertan dantzariak ongietorria egin ondoren opariak banatuko dituzte.

OREXA

■ **16:30ean.** Hiru Errege Magoak etxetz etxea ibiltzeko abiatuko dira, eta hauetan gozokiak eta opariak banatuko dituzte.

TOLOSA

■ **16:30ean.** Errege Magoak lu-rearendi egoitzara joango dira eta haurrek beraiekin egoteko aukera izango dute.

■ **18:30ean.** Errege Magoak Izaskundia behera jaisten hasiko dira. Tolosako kaleetan barrera ibili ondoren, Triangulo plazan atsedendia hartuko dute, ondoren ibilbidearekin jarraitzeko. Zerkausian amaituko dute eta bertan harrera egingo zaie.

VILLABONA

■ **19:30ean.** Amasatik behera hiru Errege Magoen kabalgata jaitziko da. Herrian zehar itzuli bat emango dute eta ondoren, plazan gozokiak banatuko dituzte.

Eguberri
hauetan
oparitu
HITZako
harpidetza!



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza info

bertako egunkaria
egin harpidetza:

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-1

www.tolosaldeko-hitza.info

Gure Tolosako bulegoan ere baduzu aukera:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa

tero, gaurko egunez izaten baitute beraiekin hitzordua.

Tolosan, laguntzaile asko

Ohikoa baino ordu bat lehenago etorriko dira aurten Errege Magoak Tolosara. Ohi bezala, Izaskun aldetik jaitsiko dira, eta itzulitxo bat emango dute erdigunetik barrena.

Errege kabalgatak, Meltxor, Gaspar eta Baltasar-ez gain beste hainbat protagonista ere izango ditu: erraldoiak; Tolosako Musika Banda; bertako produktiak; txistulariak; haurrak kriseluekin; baserritarak antortzekin; Isidro Larrañaga Musika Eskolako soinu-joleak; dultzaineroak; haurrak antortzekin (traje berriak); astoa opariekin; Udaberri dantza taldea eta Joxe eta Maria, aingeruekin.

Bestalde, jokoan da San Bernardo, Ttenttek, Kazabarra, eta Kirikiño taldeek antolatutako

Jaiotzen Lehiaketa ere. Bertan parte hartzeko interesatuak gaur izango dute izena emateko azken aukera. Hori, Plaza Zaharrean egin ahal izango dute 18:30 baino lehen. Gainera, izena ematen duten jaiotza guztiek Errege Kabalgatan parte hartuko dute.

Errege Kabalgata amaitu ondoren egingo dute sari banaketa Zerkausian. Ordura arte, jaiotzak hor bertan egongo dira ikusgai.

Elkartasun zipriztinak Leitzan

Errege bezpera presoer, iheslari eta beraien lagun nahiz familia-koei elkartasuna adierazteko eguna izaten da. Hala, 19:00etan elkarretaratzea egingo dute leitzako plazan. *Euskal preso eta iheslariak etxera!* lelopean. 21:30ean berriz, afaria izango da eskolako jangelan. Zizka mizka hotzak, entsalada mistoa, haragi zopa, baserriko oilaskoa saltsan, eta natillak izango dira jateko.

Irudia ◊ Tolosaldea



XURDIN ETA 'GOENKALE' GUREAN

Eguberrietako oporraldia dela eta hainbat ekitaldi antolatutako ekimenen baitan, Bonberenea txarangakoak Tolosako kaleetatik barrena ibili ziren. Bestalde, 'Goenkale' telesailaren grabaketak ez du atsedetik hartu Eguberrien eta grabatzen aritu ziren atzo Tolosan. E.MAIZ

Bestetik Tolosa & Co merkataritza enpresa antolatutako ekimenen baitan, Bonberenea txarangakoak Tolosako kaleetatik barrena ibili ziren. Bestalde, 'Goenkale' telesailaren grabaketak ez du atsedetik hartu Eguberrien eta grabatzen aritu ziren atzo Tolosan. E.MAIZ



Amasatik Villabonara jaitsiko dira Erregeak, ia traktorean. E.MAIZ



Hilberriak

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskaintzen dizugu dena erazagöa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

AZOKA

■ **Tolosa.** Laskorain ikastolak antolatuta, Ekuador eta Sahararen aldeko Merkatu Txikia, kultur etxean. Urtarrilaren 9ra arte egongo da zabalik.

DEIALDIAK

■ **Leitza.** Elkartasun afaria, 21:30ean, eskolako jangelan.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Puri Etxaburuaren *Bizia* erakusketa, *rebom* panpinekin osatua, Aranburu jauregian.
■ **Tolosa.** Angel Cuerdoren *Mundu bete kolore* erakusketa, Aranburu jauregian. Angel Cuerdok azken 10 urteetako bildetan jasotako argazkien bilduma. Argazkiak salgai daude, 50 euroan, eta jasotako dirua Sahararen aldeko proiektuetara bideratuko da.
■ **Tolosa.** Napoleoni buruzko erakusketa Aranburu ikusgai.
■ **Tolosa.** Wayang Golek Indonesiako txotxongiloak daude ikusgai Topic Txotxongiloen Nazioarteko zentroan.

■ **Tolosa.** *Artearen merkatua*, GKo Galerian.

GABONETAKO EGITARAUA

■ **Larraul.** Ipuin laburrak eta poemak, 12:00etan, liburutegian.

MUSIKA

■ **Anoeta.** Lobo Electrico taldea, 23:30ean, Cheyenne's Radikal Saloon-en. Doan.
■ **Villabona.** Margot, Blaka eta 3gabe2 taldeak, 23:00etan, Cantinan. Doan.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!
Maria Dolores Iraola (Anoeta).
Gaur urteak. Zorionak senarraren partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Irudia Berastegi



ELKARTEAREN URTEBETETZEA OSPATZEN

Urepelel elkartearen zazpigarren urteurrena ospatu zuten iragan ostegunean. Herritar ugari gerturatu zen festan parte hartzera, eta giro «polita» sortu zen. Batetik, luntxa izan zuten, eta ondoren zuzeneko musika, Ingo al deu? talde andoaindarren eskutik. Festan zehar saskia ere zozketatu zuten, eta Izaskun Fernandez izan zen irabazlea. Bestalde, pasa den hilabetean batzar orokorra egin eta gero, Urepelel elkarteak batzorde berria du, eta hil honen erdialdera egingo dute aldaketa. HITZA

rraren eskutik. Festan zehar saskia ere zozketatu zuten, eta Izaskun Fernandez izan zen irabazlea. Bestalde, pasa den hilabetean batzar orokorra egin eta gero, Urepelel elkarteak batzorde berria du, eta hil honen erdialdera egingo dute aldaketa. HITZA

**www.euskalherriko
PLAZA.com**

Amurrio
Orio
Bartzelona
EDONORA!

**Probatuz gero
gustatu egingo zaizu!**

Kalitatezko produktuak • Konfiantzazko ekoizleak eta zerbitzua
Erosketak edonon jasotzeko aukera

Euskal Herriko produktuak, ekoizlearengandik zure etxera

matilda

gabon bakartian, beanditu zizazu opart onianekin

zuzen matildarekin